

3. Eranskina

Konparaketak denboran zehar eta herrialdeen artean egin behar direnean... banaketarentzat egindako kalkuluen kopurua arin hazten bada ere, sistematikoki erabilgarri daudenak *per capita* BPGrako daudenak baino gutxiago dira oraindik. Oso herrialde gutxirentzat daude serie luzeak erabilgarri, eta ez da inola ere segurua kalkulu-metodoak elkarrekin bat datozen herrialde ezberdinetarako edo data ezberdinetarako. Nazioarteko desberdintasunaren azterketari berebiziko bultzada eman dio Klaus Deininger eta Lyn Squire-k Munduko Bankuan egindako datu multzoa argitaratzeak, baita datu-multzo hori oinarri hartuta egindako WIDER International Inequality Database (WIID) argitaratzeak ere.

Deininger eta Squirek datu-multzo bi egin zituzten 1950ean hasi eta ia 1995. urtearen arteko denbora-tarterako: erabilgarri dagoen totala eta eurek fidagarrientzat jotzen dituzten zifren bertsio laburtua, kalitate handia edo “onartu” deritzenak. Kategoria horretan sartzeko erabilitako irizpideak dira: errenta-iturri guztiak, autokontsumitutako produkzioa barne, erabiltzen dituzten familia-azterketa nazionaletan lortutakoak, biztanleria guztiaren errenta edo gastuei buruzko datuak. Irizpide horiek aplikatzeak itxuraz nolabaiteko koherentzia ematen dio datu-multzo osoari. Baina horren baliozkotasunari buruzko hainbat erreparatu egin dituzte Atkinson eta Brandolinik (2001), “bigarren mailako” nazioarteko datu-multzoen kritika orokorraren zati bezala. Autoreok adierazten dute inkoherentzia esanguratsuak daudela Deininger eta Squireren kalitate handiko datu-multzoaren eta OECD herrialdeetako errentaren banaketari buruzko datu-iturrien –gehiago aztertu direnen– artean, eta, data ezberdinetan definizio ezberdinak erabili direnez, ondorioztatu ere egiten dute, Herbehereen kasua adibide moduan erabilita, “oso engainagarria izango litzateke(ela) DS [Deininger-Squire] “onartu” estimazioak serie jarraitutzat hartzea” (780. or.). Hori gertatzen bada ekonomia-estatistikak oso garatuta dituen herrialde batean, egoera oraindik ere txarragoa izango da herrialde gehienetan, horietan estatistikak ez baitaude garatuta. Atkinson eta Brandoliniren argumentuen, eta nazioarteko errenta eta banaketa datuen inkoherentziari eta fidagarritasun ezari egin zaizkion beste hainbat kritikaren ondorio erabat ulergarria da munduko banaketa kalkulatzeko egindako edozein ahalegin, horretarako hainbat herrialdetako banaketa datuak denbora-tarte luzean erabilita, guztiz fidagarritasun gabea dela, eta, agian, albora utzi behar dela.

Horrelako datuak existitzen direnean, dena den, mugak muga, oso handia da hori aztertu eta horrela berarekin zer dakarren ikusteko tentazioa. Banaketarekin gertatzen ari dena hain da garrantzitsua guretzat, ez ditugula baztertzeko horri buruz izan ditzakegun froga desegokiak. Eta ditugun datuetatik behin-behineko ondorioak ateratzea, horiek beste azterketa batzuekin konparatzea eta inkoherentziak behatzea datuen etorkizuneko kalitatea gehitzeko lanerako lagungarri izango litzateke. Atkinson eta Brandoliniren oharrek garrantzitsuak badira ere, gure datu desegokiak erabiltzen jarraitu dut behin-behineko ondorioak aztertzeke. Ez dago inolako itxaropenik iraganari buruzko datu hoberik lortzeke. Beraz, errenten estimazioekin gertatzen den bezala, kontu handiarekin erabili behar dugu hemen ere.

Sutcliffe, B. (2002) “Munduko desberdintasunak, gora ala behera?. Munduko errentaren banaketa XX. Mendean” Hegoako Lan Koadernoak, 32. zbk. 67-8 orri. Bilbo.